

Adopzioa eta zailtasun psikosozialak: txinatar jatorriko gazteen kasua

Haizea Jicai Llano García

Ikertzaile independentea
haizeallanog@gmail.com

Artikulu hau nazioarteko adopzioaren testuinguruan kokatzen da, zehazki, Txinarekiko nazioarteko adopzioaren testuinguruan. Nazioarteko eta arrazarteko adopzio prozesuetan adoptatutako pertsonak hainbat zailtasun izaten dituzte, eta horrek haien hazkunde pertsonala eta garapen psikosoziala oztopatzen ditu. Zailtasun horiek sakonago ezagutzeko, esplorazio-ikerketak bat egin dugu, Espainiako geografia-eremuan adoptatutako txinatar jatorriko pertsonen egindako elkarrizketen eta adopzioari buruzko dokumentazioaren bidez. Lortutako emaitzen artean, ikusi dugu elkarrizketatutako txinatar jatorriko adoptatuek desberdintze-sentimendu indartsua bizi izan dutela, eta horrek beren bizitzako alde anitzetan eragin diela, hala nola autoestima baxua izatea edo sozializatzeko orduan mesfidantza sentitzea. Gainera, zailtasun horiei aurre egiteko, estrategia pertsonalak garatu dituzte.

Gako-hitzak:

Adopzioa, nazioarteko adopzioa, jatorri txinatarreko pertsona adoptatuak, zailtasun psikosozialak, adopzio osteko zerbitzuak.

Este artículo se ubica en el contexto de la adopción internacional, en concreto, de la adopción internacional en China. Las personas adoptadas en procesos de adopción internacionales e interraciales viven una serie de dificultades que obstaculizan su crecimiento personal y desarrollo psicosocial. Para conocer más a fondo esas dificultades, hemos llevado a cabo una investigación exploratoria realizada a través de entrevistas a personas adoptadas de origen chino en el ámbito geográfico español y de documentación sobre la adopción. Entre los resultados obtenidos, hemos observado que las personas adoptadas de origen chino entrevistadas han vivido un fuerte sentimiento de diferenciación, el cual ha afectado en varios aspectos de sus vidas, como por ejemplo tener baja autoestima o sentir desconfianza a la hora de socializar. Además, con el fin de hacer frente a esas dificultades, han desarrollado estrategias personales.

Palabras claves:

Adopción, adopción internacional, personas adoptadas de origen chino, dificultades psicosociales, servicios posadoptivos.

1. Sarrera

Adopzioa, oro har, haurren babesa bermatzeko metodo bat da, non babesik gabeko adingabe bat familia batean integratzen den. Nazioarteko adopzioak hazkunde nabarmena izan zuen XX. mendearen 90eko hamarkadaren azkenengo urteetan eta XXI. mendearen lehenengo hamarkadan Espainian, eta hori dela medio, jatorri desberdinetako ume ugari heldu ziren aipatutako denboraldi zehatz horretan. Zehazki, 1997tik 2006ra nazioarteko 33.935 adopzio eman ziren Espainian, adoptatu gehienak Asia eta Ekialdeko Europakoak izanez (Alberola *et al.*, 2008). Dena den, nazioarteko adopzioek behera egin dute aipatutako azken datatik, hau da, 2006tik 2021era, 4.301 nazioarteko adopzio gutxiago eman baitira; izan ere, 2006an 4.472 adopzio eman ziren, eta 2021ean, berriz, 171. Nabarmenezkoa da gaur egun Espainian 55.977 nazioartean adoptatutako pertsonak daudela, eta horietatik 16.327 txinatar jatorrikoak direla (García, 2022).

Horren ildotik, garrantzitsua da azaltzea Txinak Hayako Hitzarmena sinatu zuela 1993an, nazioarteko adopzioaren arloan; eta hori dela eta, hiru urte geroago nazioarteko adopzioa hasi zen Txinarekin Espainian, 1997. urtean izanik lehenengo urtea. Lehenengo urteetan, hots, 1997tik 2002ra Txinarekin izandako nazioarteko adopzioa pixkanaka handitzen joan zen, nahiz eta 2001 eta 2002 urteen bitartean hazkunde hori nabarmenagoa izan, 941 2001ean eta 1.427 2002an, alegia. Dena den, 2004. eta 2005. urteetan haren goia jo zuen, aipatutako lehen urtean, 2.389 adoptatu iritsi baitziren Txinatik Espainiara, eta 2005ean, berriz, 2.753. Geroztik, Txinarekin egindako adopzioen kopurua gutxituz joan da pixkanaka, 2006an 1.759 adopzio izatetik 2021. urtean adopziorik ez izatera igaro baita. Horren arrazoiak dira, besteak beste, Txinak izan duen garapen ekonomikoa, adopzio nazionalari lehentasuna ematea eta seme bakarraren politika indargabetzea (García, 2022; Rodríguez, d.g.).

Lehen aipatutako Hayako Hitzarmena nazioarteko hitzarmen bat da, eta alderdi asko arautzen ditu, besteak beste, haurren eskubideak, haurrak babesteko eta herrialde sinatzaile guztiek hitzarmen hau bete dezaten ziurtatzeko. Sinatzeko eskubidea librea da, hau da, herrialdeek sinatzea edo ez erabakitzen dute, baina herrialde batekin edozein prozesu edo itun egin ahal izateko, bi aldeek hitzarmen hau sinatu behar dute, bestela ezingo litzateke gertatu.

Orain arte aipatutako nazioarteko adopzioaren barnean arrazarteko adopzioa dago, hots, adopziozko familia eta adoptatua bestelako arraza edo etnia batekoak izatean datza, eta artikulu hau adopzio horren inguruan kokatzen da. Izan ere, artikulu honetan bilatzen dena da arrazarteko adopziozko pertsonak, kasu zehatz honetan, txinatar jatorriko adoptatuek aurre egin behar dieten zailtasun psikosozialak ezagutaraztea, gizartearen zati batek ez baitu errealitate horren berri.

Horregatik, gai hau lantzeko beharretako bat da lan honen ikerketa-ildoak kolektibo horren beharrak

agerian jarri nahi izatea gizarte-ekintzatik. Gizarte-langintzaren esparru horretatik diseinatu eta abiarazi dira aurre adopzioaren etaparako baliabideak, berehalako adopzio ostekoa, hau da, adingabearen jarraipena haren etorreraren ondorengo bi urteetan eta jatorriaren bilaketa azken etapa gisa. Hala ere, gaur egun eta gizarte-ekintzatik, ez dago artikulu honek aipatzen duen kolektiboarentzako laguntza-lerrorik. Gainera, beharrezkoa da gizarteko kolektibo horrek bere burua ikusarazi eta kolektibo horretatik kanpoko pertsonak adopzioaren gaian hezteko, betiere kolektibo horretako pertsonen ikuspegia eta esperientziak kontuan hartuta, nola jokatu jakiteko. Azken finean, errealitate hori islatuz eta jakinaraziz, hots, daukatena eta sortu nahi dutena, etorkizunean hobe izatea lor daiteke bai lehenengo belaunaldiko kideentzat, bai haien atzetik datozen gainerako belaunaldientzat ere.

Hori lortzeko, lehenik eta behin, ezinbestekoa da jakitea zer eragin psikosozial duen arrazarteko adopzioak, eta horrek zerk zailtasun eta erronka sortzen dituen txinatar jatorriko adoptatuen bizitzako esparru ezberdinetan. Ez hori bakarrik, horrekin batera ere garrantzitsua da ezagutzea zer nolako baldintzatze-maila eragiten duen nazioarteko adopzioak pertsona adoptatuarengan, bizi izandako benetako zailtasun-egoerak aztertzea, aurkezten zaizkien zailtasun eta erronkei nola aurre egiten dieten ikertzea eta haien premiak ezagutaraztea, kanpoko laguntza-baliabide profesionaleri dagokionez.

Ikerketa hau gizarte-langintzaren esparrutik garatuko dugu. Kontutan izanik gai hau ikuspuntu honetatik gutxi landua izan dela, hemen aurkezten dugun lana esplorazio-ikerketa bat da. Honetarako erabili dugun metodologia bibliografiaren analisisian eta sakoneko elkarrizketetan oinarritu da. Beraz, artikulu hau lau ataletan banatuko da, hain zuzen, lehenengo marko teorikoa egongo litzateke, non adopzioarekin lotutako hainbat alderdi jorratuko dira, besteak beste, adopzioa zer den, zer motatako adopzioak dauden, edo adoptatzeko jarraitu beharreko prozesua. Dena den, alderdi horien artean garrantziaren ardatza nazioartean adoptatutako pertsonak aurre egin behar dieten zailtasun psikosozialetan zentratzen da, hau da, adopzioak dakartzan eragin psikosozialak. Bigarrenik, ikerketa hau egiteko erabili den metodologia azalduko da eta hirugarrenik, analisis egongo litzateke, non elkarrizketetan lortutako ideien azterketa egiten den; eta amaitzeko, lanaren ondorio orokorrak azalduko dira.

2. Adopzioa eta eragin psikosozialak

2.1. Adopzioa, adopzio motak eta adopzio prozesua

Adopzioa hainbat modutara uler daiteke, adar profesionalaren edo ikusten ari garen ikuspegiaren arabera. Nolanahi ere, Caceresek ([2021]: 105, Palacios [2009] eta Palacios *et al.*, [2019] aipatuz) honako definizio hau eman du adopzioa zer den zehazteko:

Adopzioa babes-sistemaren neurririk muturrekoena da; izan ere, adingabearen filiazioa maila juridikoan etengabe aldatzea dakar. Horrek esan nahi du adoptatua den adingabea bere guraso biologikoen seme izateari uzten diola, legez, ondorio guztietarako eta betiko, eta adopziozko gurasoen seme edo alaba bihurtzen dela. Neurri honen helburu nagusia egonkortasuna eta iraunkortasuna da, zentzurik zabalenean ulertuta, zoritxar goiztiarreko esperientzien ondoren eta bizi-zikloan zehar.

Palaciosek emandako definizioan ikus daitekeenez, argi eta garbi aipatzen da adingabearen egoeraren aldaketa, baita muturreko babes-neurri horrek adingabeari duen garrantzia eta eragina ere, babes osoko sare bat ematen diolako; hau da, adingabe batek izan ditzakeen premia guztiak asetzen dira.

Nolanahi ere, beharrak asetuta edukitzeak ez du esan nahi horrekin garapen psikologiko edo emozionala bermatuta dagoenik, eta, beraz, ezinbestekoa da adopzio gurasoek adingabeari bere adopzio-egoeraren eta harekin lotutako gai guztien berri ematea; izan ere, horren bidez, adingabearen ongizate psikologikoa bultzatzeaz gain, bere nortasuna hausturarik gabe eraiki ahal izango du (Adroher eta Berástegui, 2000).

Adopzioari buruzko beste gai bat adopzioak dauzkan motak dira, eta horiek bi dira: adopzio nazionala eta nazioarteko adopzioa. Bi adopzio-motak bereizten dituen ezaugarri nagusia adingabearen jatorria da. Adopzio nazionalaren kasuan, adopzio-familiak eta adingabeak nazionalitate bera dute; hala ere, nazioarteko adopzioan, kontrakoa gertatzen da, hau da, bi alderdien nazionalitatea desberdina da. Beraz, hori kontuan hartuta, artikulua honen ardatza nazioarteko adopzioa izango da, txinatar jatorriko adoptatuei buruz hitz egiten baita.

Adopzio nazionalaren eta nazioarteko adopzioaren adopzio-prozesuan antzekotasunak dauden arren, egia da antzekotasunak baino alde handiagoak daudela haien artean, hainbat faktoreren ondorioz; nolanahi ere, bi adopzio motetan, adopzio-prozesua adopzio-familientzako ezagutza, gogoeta eta ikaskuntza prozesutzat hartzen da, eta adopzio taldeetako profesionalen laguntza eta aholkularitza izaten dute une oro. Gaur egun, prozesu hori hainbat fasek osatzen dute, eta fase horiek prozesua hasten denetik amaitzen den arte irauten dute, hau da, adingabea adopziozko familian integratzen den arte. Rosser-en arabera (2010), nazioarteko adopzioaren prozesua osatzen duten fase horiek honako hauek dira:

1. Informazioa. Fase honetan adopzioaren eta adopzio-gurasotasunaren berezitasunen inguruko informazioa ematen da, familiek ezjakintasun handia dutelako. "Familiak administrazio eskudunekin harremanetan jartzen diren unean hasten da, eta beharrezko datu guztiak biltzen dituzte, besteak beste, prozedura, epeak, alternatibak eta abar, hitzaldien, dibulgazio-

liburuxken, Interneteko webguneen eta abarren bidez" (Rosser, 2010: 85). Lehenengo fase hau familiak adopzio-eskaera egiten duenean amaitzen da, eta dagokion erakundean txostena irekiz (Rosser, 2010).

- 2. Prestakuntza.** Bigarren fasean, familiek prestakuntza-tailer eta ikastaroetan parte hartzen dute, eta tailer horiek familiei adopzio-proiektuan orientazioa ematera bideratuta daude. Horrekin batera, tailerren beste helburua da familiak adopzio-prozesuan prestatzea, profesionalekin batera baloratuz familiaren premiak, motibazioa eta jarrerak (Rosser, 2010). Era berean, tailer horietan etorkizuneko adopzio-familien hiru alderdi ere erreparatzen dira, zehazki: 1) jarrerazko alderdiak eta alderdi emozionalak; 2) adoptatutako haur bat hezi ahal izateko trebetasunak garatzea; eta 3) alderdi kognitiboak (Amorós eta Fuertes, 1996).
- 3. Adoptatzeko egokitasunaren balorazio psikosoziala.** Hirugarren fase honetan, diziplina anitzeko talde batek familien gaitasuna baloratzen du, eta, horretarako, txosten bat egiten du "haien gaitasunei, egoerari eta adopziozko familia bihurtzeko gaitasunari buruz" (Bermudez, 2007: 2). Balorazio horretan, elkarrizketak, etxeko bisitak eta gaitasun-probak egiten dira, familien errealitate psikologikoa eta soziala sakonago ezagutzeko. Izan ere, balorazio hori egiten da adoptatutako adingabearentzat familia egokia aurkitzeko, zeinak gai izango dena bere beharrian guztiak estaltzeko.
- 4. Itxarote-denbora eta familia-adingabearen esleipena.** Fase horrek, "adopzioaren praktikan, ideologiaren eta adopzio-prozesuan adingabea esleitzearen arteko tarte hartzen du" (Berástegui, 2008: 551-552). Tarte horren ezaugarrietako bat da ez duela ez denbora zehatzik ez adierazlerik familiei prozesua nola doan jakinarazteko; beraz, ziurgabetasunez betetako fasea izaten da familientzat. Izan ere, nahiko zaila da itxaronaldi horri urte zehatzak jartzea, garaiaren eta herrialdearen arabera aldatzen baitira. Itxaronaldia amaitu ondoren (urte batzuk irauten duena, alegia), familiari adingabe bat esleitzen zaio *matching* prozesuaren bidez, eta, ondoren, familiari esleipenaren eta esleitu zaien adingabearen ezaugarrien berri ematen zaio, familiak behin betiko onartu aurretik.
- 5. Prestaketa eta akoplamendua.** Familiak prozesuarekin aurrera egitea onartzen badu, adingabea familia-sisteman sartzeak ekar ditzakeen zailtasunak ezagutzeko eta horiei aurre egiteko gai izateko prestatzen zaio. Hori behin eginda eta prest daudenean, lehenengo topaketak egiten dira harrera-zentroan eta une horretara arte adingabearekin bizi izan diren pertsonekin batera egoten dira (Rosser, 2010). Era berean, oso garrantzitsua da adingabea bere familia berrian sar dadin prestatzea eta bere bizitzari jarraipena ematen laguntzea (Triseliotis, 1994).
- 6. Egokitzea. Jarraipen-fasea.** Fase honetan, adingabea familiaren dinamikara ez ezik, erritmorara ere egokituko da, eta horrek aldaketa handiak

ekarriko ditu. Era berean, adingabea gainerako senideei eta adopziozko familiaren gizarte-inguruneari aurkeztu beharko zaie; horregatik, fase honetan, "famiaren gizarte-laguntzako sareak eta profesionalen laguntza erabakigarriak izango dira adopzioak arrakasta izan dezan" (Rosser, 2010: 98). Horrekin batera, adopzio-familiak arazoak eta zailtasunak gainditu beharko ditu, zeintzuk areagotu eta familiaren dinamikan eragin dezakete, Adopzio Zerbitzuko teknikariek egiten duten jarraipenarekin batera (Rosser, 2010).

- 7. Adopzio osteko zerbitzuak.** Hau da adopzio prozesuaren azken fasea, eta zerbitzu horien helburu nagusia da prozesuaren azken bi faseetan eta adopzio-prozesu osoa amaitu ondoren adopzio-familiatan sor daitezkeen arazoak estaltzea, horietan porrotak saihesteko. Zerbitzu horiek sortzeko beharrendu jatorria da adopziozko familiek eta haien adopziozko seme-alabek laguntza eta orientazioa behar izatea, nahiz eta bi aldeen aldetik egokitzapen egokia eta arazorik gabea izan.

Adopzio osteko zerbitzuei dagokienez, mota horretako zerbitzuei garrantzi handiagoa eman behar zaie eta arreta handiagoa jarri behar zaie bi arrazoi nagusirengatik: lehenengoa, zerbitzu horien urritasunaren ondorioz; eta bigarrena, ez daudelako ebaluazio sistematikorik, horiek adopzio ondoko zein zerbitzu diren eraginkorrenak eta zeintzuek ez zehazteko balio baitute. Adopzioaren ondoren eta adoptatuen bilakaeraren ondoren sortzen den espazioa abandonatuena izan da, hots, hor egindako lana oso txikia da edo ia nulua, dela adopzioaren gain egindako esku hartze profesionaletan, dela adopzioari buruzko ikerketetan (Palacios eta Brodzinsky, 2005).

Ikus daitekeenez, zerbitzu horiek ezinbestekoak dira, ez soilik adopzio osteko bi urteetan, baizik eta adopzio osteko prozesu osoan, adopzio-familiaren eta adoptatutako pertsonen premiak asetzeko, azken finean, horiek denborarekin aldatu eta bilakatzen baitira. Gainera, "funtsezko lau motatakoak izan behar dute: hezkuntza- eta prestakuntza-arlokoak (gai zehatzak lantzeko bilerak edo mintegiak, idatzizko baliabideen banaketa...), laguntza-sareak bideratzekoak (auto-laguntzako taldeak, profesionalak koordinatutako taldeak), klinikoak (hezkuntza-aholkularitza, tratamendu klinikoak) eta asistentzia-arlokoak (laguntza ekonomikoak, atsedenerako zerbitzuak ematea...)" (Palacios, 2007: 193).

2.2. Adopzioaren eragin psikosozialak

Adopzioak adoptatutako pertsonengan sortzen dituen zuzeneko eta zeharkako ondorio psikosozialek, kasu honetan nazioartekoan artean, adoptatutako pertsonaren bizitzan zehar dute presentzia, aurkezteko modua aldatuz joaten baitute adoptatutako pertsonaren bizi-etaparen arabera. Horregatik, eragin psikosozialek bizi-etapa eta -eremu hauetan dute eragina, besteak beste: haurtzarora, nerabezarora eta identitatea, autopertzepzioa eta autoestimua, garapen emozionala, sozializazioa eta arrazakeria.

Haurtzarolari dagokionez, haurtzaro ertainean (6-12 urte) adoptatuak gehiago jabetzen dira adoptatua izateak zer esan nahi duen. Adopzioa gertatu aurretik gertatzen denaz jabetzen dira: familia biologikoak abandonatzea, hain zuzen. Gertaera hori ezagutzea mingarria da, galera esperientzia horiek oso sakonak izateagatik; eta, beraz, adingabe adoptatuak shock egoera gisa bizi dezake adoptatua izatea. Arrazoi horregatik berregatik, berebiziko garrantzia du adopziozko-familiak adoptatuaren iraganarekin eta duen guztia adoptatutako adingabearekin lantzea hura txikia denetik, gai horiek garatzen eta hazten joango direlako.

Nerabezarora are gehiago areagotzen dira adoptatutako pertsonaren eta adoptatutako familiaren arteko aldaketa eta desberdintasun fisikoak eta pertsonalak. Desberdintasun horiek etengabe nahastuko dute adoptatua bera eta kanpoko jendea; izan ere, adoptatuaren kanpoko irudia eta hura identifikatzen denarekin ez doaz eskutik (San Martino, 2014). Era berean, etapa honek zalantza eta galdera ugari dakarkio adoptatuari, eta adoptatuak adin horretako galdera eta zalantza horiek guztiak biziki bizitzen ditu, adoptatua izateagatik (Mirabent, 2014). Gainera, horiek dira, hain zuzen ere, beren nortasuna definitzea eta gero barneratzea zailtzen diotenak, zalantza eta galdera horiei erantzutea zailagoa delako nazioartean adoptatutako pertsonentzat, besteak beste, informaziorik ez dutelako (Rosser, 2013).

Horretaz gain, desberdintasun argia ikus daiteke adoptatutako eta adoptatu gabeko pertsonen autopertzepzio- eta autoestimu-mailen artean, aipatutako lehenengoena txikiagoa izateagatik (Child Welfare Information Gateway, 2013). Eraitza horietan eragin handiena duen faktorea desberdintasun-sentimendua da, zeinak adoptatuari gutxiagotasun- eta desbalorizazio-sentimendua ere eragiten dion (Hawkins *et al.*, 2007). Horrekin batera, gaineratu behar da fisikoki desberdinak izateagatik jasaten dituzten iruzkin eta jokabide negatiboek ere kalte egiten dietela adoptatutako pertsonen autopertzepzio eta autoestimuari, zuzeneko harremanetan jartzen dietelako, besteak beste, adoptatu izatearekin (San Martino, 2014).

Garapen emozionalari dagokionez, adoptatutako pertsonak, familia biologikoak oso adin goiztiarretan bizitako abandonuaren eta lotura ezaren ondorioz, beren garapen emozionala geldirik ikusten dute. Horren ondorioz, zailtasun handiagoak dituzte beste pertsona batzuekin loturak sortzeko orduan (Rosser, Bueno eta Domínguez, 2010); beraz, hori kontuan hartuta, adoptatutako pertsonen arlo emozionalak eta sozialak berreskuratzeko prozesuak denbora behar du. Hala ere, badira garapen emozionalako prozesu hori adoptatuarentzat positiboa eta mesedegarria izan dadin laguntzen duten eta funtsezkoak diren faktoreak, eta honako hauek dira: adopziozko familia bat izatea, harekin igarotako denbora eta haren ingurunea (Román, 2010).

Lehen aipatutako arloek eragina dute sozializazio-prozesuan, eta zailagoa izan daiteke nazioarteko adopzio pertsonentzat, ezaugarri fisikoengatik beste pertsonengandik jasan dezakeen diskriminazioa eta bazterketa dela eta. Horrekin batera, nabarmendu behar da instituzionalizazio-zentroetan (esate baterako, umezurtegietan) igarotako denborak eta zentro horien baldintzek eta baliabideek (horien artean, adingabeak zaintzaileen kopurua) lotura zuzena dutela adoptatutako pertsonen sozializatzeko dituzten zailtasunekin (Kadlec eta Cermak, 2002). Horrez gain, Verhulst *et al.*-ek (1990) burututako ikerketak adoptatutako adingabeek zituzten lagunen kopurua eta haiekin zuten harremana txikiagoa zela ondorioztatu zuen. Ez hori bakarrik, adoptatutako adingabeek ere zailtasun gehiago dituzte bai lagunak egiteko orduan, bai haiei eusteko orduan ere (Howard *et al.*, 2004; Pitula *et al.*, 2014; Verhulst *et al.*, 1990). Zailtasunak konplexuak izaten hasten dira haurtzaro eta haurtzaro berantiarrean, hala ere, ondorengo etapetan, zailtasun horiek arindu egiten dira helduarora iritsi arte, non harremanak hobeto eta gehiago menderatzen diren, denborarekin lortutako esperientziari esker.

Amaitzeko, arrazakeria da nazioartean adoptatutako pertsonengan eragin handiena duen faktoreetako bat, arrazakeria pairatzeko aukera gehien dituztenak baitira. Arrazismoa hain erraz azaltzeak ondorio zuzena eta negatiboa du adoptatuaren ongizate psikologikoan eta bere nortasunean (Hrapczynski eta Leslie, 2019; Nelson eta Colaner, 2017). Gainera, nabarmendu behar da jasaten dituzten arrazakeria- eta diskriminazio-ekintza horiek egunerokoak izan daitezkeela, eta horren ondorioz, nazioartean adoptatutako pertsonen beren norberaren irudiarekiko eta gorputzeko atalekiko arbuioa senti dezaketela (Múgica, 2012). Era berean, arrazakeria ezkatututa egon daiteke adoptatuaren pribatutasunari eta intimitateari buruzko jakin-minezko iruzkin edo galdera kamuflatuen atzean, eta horiek deserosotasun-egoera sortzen dute pertsona adoptatuarengan, Martín-Rodríguez arabera (2018) horiek mikroerasoak baitira.

2.3. Txinatar jatorrizko nazioarteko adopzioak

Duela gutxi arte Txinarekin izan diren nazioarteko adopzioen ezaugarrietako bat da adoptatutako pertsona gehienak emakumeak izan direla. Datu hori nabarmendu behar da, 1979an seme bakarraren politika ezartzearen ondorio eta emaitza baita. Politika horrek bikote batek izan zitzakeen seme-alaben gehieneko kopurua arautzen zuen, biztanleriaren kopurua ez handitzearen, eta 36 urtez egon zen indarrean 2015eko urrian indargabetu zen arte. Egoera kultural eta soziala dela eta, semeak izateko lehenetsunak ere gehiago egin zuen gora eta, horren ondorioz, "bikote txinatarrak ahalik eta baliabide gehien erabiltzen zituzten seme bat izateko" (Zamora López eta Rodríguez Veiga, 2020: 148). Beraz, alaba bat jaiotzen zenean, askotan, alaba hori jaiotze bezain laster abandonatzen zuten edo hura ez izatea eragiten zuten beste ekintza batzuk burutzen ziren, haren bizitza ezkatutze aldera (Zamora López eta Rodríguez Veiga, 2020).

Horretaz gain, txinatar jatorrikoek, Marcos-ek dioen bezala (2011), askotariko diskurtsoak dituzte, bakoitzak modu desberdinean bizi baitu adopzioa: batzuek bere familia biologikoei buruz gehiago jakin nahi dute, beste batzuek jatorri txinatarreko adoptatutako beste pertsona batzuekin adiskidetasuna dute, beste batzuek ez dute beren jatorrizko kulturarekin harremanik izan nahi, batzuek Txinara itzuli nahi dute, beste batzuk ez dira ez hemengoak ez hangoak sentitzen, etab. Dena pertsonaren mende dago, eta nola sentitzen den eroso gai delikatu, intimo eta pertsonal horri buruz hitz egiten, bertan mina edo frustrazioa eragin diezaioketen gaiak azaleratu baitaitezke, hala nola, isolamendua, bakardadea, autoestimua baxua, identitatea, sorburuen bilaketa edo gatazka pertsonalak. Gainera, horiek guztiek gorakada handiagoa izango dute adoptatuak hazten doazen heinean.

Txinatar jatorrizko adoptatuaren kasuen beste ezaugarrietako bat bada, "batez beste urte eta erdierekin iristen direla. Istorio bat dakarte, dramatiko dena, eta hausturez eta ezbeharez hitz egiten du" (Marcos, 2011: 117). Esan daiteke ezbehar horiek adoptatuek bizi dituzten zailtasunen sorburutzat har daitezkeela, gauza batzuek min ematen dutelako, eta gainerako familia edo ingurukoek ez bezala izatea egin dezaketelako. Gainera, horri gehitu behar zaio, adopzio-familiaren eta jatorri txinatarreko adoptatuaren artean ezaugarri fisikoetan dagoen desberdintasun argi horrek adopzioa agerikoa izatea eragiten duela, eta horrek besteren jakin-nahi handia sor dezake, ondorioz, horrek deserosotasuna eragin diezaiokete adoptatuari, bere intimitatearen aurka egiten baitute.

Beraz, egoera horiei eta lehen aipatutakoei aurre egiteko, adoptatuek estrategia desberdinak garatzen dituzte, besteak beste, adopziozko literaturan aipatutakoak: desberdintasun horiek baztertzeara, desberdintasun horiek azpimarratzea (modu negatiboan, adoptatutakoarentzat) eta desberdintasunak onartzea, horiek ez direla ez hobe ez okerragoa ulertuta (Marcos, 2011). Aipatzekoa da hiru gertakizun horiek pertsona berean gerta daitezkeela, zein etapetan dagoen kontuan hartuta, horrek eragina baitu.

3. Metodologia

Aurrera eramandako metodologia mota kualitatiboa izan da, izan ere, elkarrizketa sakonaren teknika erabili da elkarrizketatutako pertsonengandik informazio gehiago eskuratzearen, eta, gainera, lortzen den informazioak aberastasun handiagoa du. Horretarako, esplorazio-ikerketak honetan bilatzen den elkarrizketatuaren profila da adopzioak dakarren prozesu guztiaren informazioa ezagutzen ote duen eta hori eman dezakeen pertsona, adopzioak eragiten dituen eragin psikosozialak azal ditzakeenak, nazioarteko adoptatua izateagatik zailtasunak bizi izan dituena, etab. Horregatik, heldutasun goiztiarrean dagoen Espainiako estatuan hazi eta bizitzen

den lehenengo belaunaldiko jatorri txinatarreko pertsona adoptatuaren laguntza behar da. Beraz, ezarritako irizpideak behin aplikatuta elkarrizketatu diren pertsonak jatorri txinatarreko zazpi pertsona adoptatuak, emakume guztiak, eta adingabeen babesaren eta adopzioaren arloan espezializatutako teknikari profesional bat izan dira.

Elkarrizketatuen profilari erreparatuz, esan bezala, guztiak emakumeak dira, 19-23 urte bitartekoak, eta Espainiar estatu osotik bananduta. Hori dela eta, Googleren Hangouts plataformatik egin behar izan dira elkarrizketa gehienak, hau da, online bat izan ezik. Dena den, profilean gehiago sakontzeko helburuarekin, hona hemen elkarrizketatuen profila¹ zehatzago bat:

- Maider. Donostian bizi den 22 urteko emakume adoptatua da eta 2001ean iritsi zen Espainiako Estatura, 14 hilabete zituela. Familia tradizional batek adoptatu zuen (gaur egun aita hilda dago).
- Claudia. Guadalajaran (Gaztela-Mantxa) bizi den 22 urteko emakume adoptatua da eta 2001ean iritsi zen Espainiako Estatura, 13 hilabete zituela. Familia tradizional batek adoptatu zuen.
- Laura. Puente Genilen (Andaluzia) bizi den 22 urteko emakume adoptatua. 2001ean iritsi zen Espainiako Estatura, 15 hilabete zituela, eta guraso bakarreko familia batek adoptatu zuen.
- Paula. Mairena del Aljarafe (Andaluzia) bizi den 22 urteko emakume adoptatua da eta 2001ean iritsi zen Espainiako Estatura, 15 hilabete zituela. Familia tradizional batek adoptatu zuen (gaur egun gurasoak dibortziatuta daude).
- Sara. Alcázar de San Juan (Gaztela-Mantxa) bizi den 23 urteko emakume adoptatua da eta 2001ean iritsi zen Espainiako Estatura, 2 urte zituela. Guraso bakarreko familia batek adoptatu zuen.
- Nuria. Sevillan (Andaluzia) bizi den 22 urteko emakume adoptatua da eta 2001ean iritsi zen Espainiako Estatura, 13 hilabete zituela. Guraso bakarreko familia batek adoptatu zuen.
- Jone. Bilbon bizi den 19 urteko emakume adoptatua da eta 2004an iritsi zen Espainiako Estatura, 13 hilabete zituela. Familia tradizional batek adoptatu zuen (ahizpa nagusia ere jatorri txinatarreko adoptatua da).

Horrekin batera, pertsona horiek elkarrizketatuak izateko hautatu izanaren arrazoia hurrengo izan da: gehienak Txinan adoptatutako pertsonen lehenengo belaunaldikoak dira eta, horren ondorioz, bizi izan dituzten bizipenak kolektibo sozial bereko baina belaunaldi desberdineko beste pertsona batzuegandik bereizten direlako. Gainera, aipatu behar da ia guztiak heldutasun goiztiarrean daudenez, adina dela eta, bizi-esperientzia handiagoa dute orain arte bizi izan dituzten lau etapetan; beraz,

pertsona horietatik lor daitezkeen informazioa askoz baliotsuagoak eta aberastasun handiagokoak dira. Horretaz gain, argitu beharra dago zergatik diren txinatar jatorriko adoptatu guztiak emakumeak, eta horixe da, hain zuzen ere, lehen Zamora López eta Rodríguez Veigaren (2020) azaldu egin den 1979ko seme bakarraren politika.

Bestalde, teknikari profesionala aukeratzeko arrazoi nagusia arlo horretan duen esperientzia eta ibilbide profesionala izan da. Aldez aurretik adierazi den moduan, arlo horretan espezializatua dago eta gainera, adopzio osteko zerbitzu batean lan egiten du, besteak beste. Beraz, profesional honek emandako informazioa oso baliotsua izan da.

Bi alderdiekin, hau da, txinatar jatorriko adoptatuekin eta teknikari profesionalarekin harremanetan jartzeko prozesuak ez zuen inolako zailtasunik ekarri, aurrez ezagutzen ziren. Beraz, alde bakoitzari mezu bat bidali behar izan zitzaion, ikerketa zertan datzan azaltzeko eta parte-hartzea proposatzeko, onartu zutena. Elkarrizketak egiteko datak hitzartu ondoren, grabatu egin ziren, ondoren transkribatzeko eta aztertzeko. Analisisian, elkarrizketetan eskuratutako datuak eta ideiak gaika multzokatu ziren, eta gai bakoitzean aztertu zen ematen ziren ideiak komunak edo pertsonalak ote ziren, gaien arteko erlazioa ba ote zegoen eta elkarrizketatuek aipatzen zituzten ideien atzean zeuden arrazoiak aztertzea.

Orain arte azaldutako guztia abiapuntutzat hartuta, lau hipotesi landuko dira: 1) nazioarteko adopzioak desberdintasun-sentimenduekin etengabe aurre egiten dio pertsonari, garapen psikosoziala oztopatuz; 2) kolektibo horretako pertsonen zailtasunak dituzte beren bizi-esperientzian arlo guztietan; 3) txinatar jatorriko adoptatu guztiak trebetasun pertsonalak garatzen dituzte zailtasun psikosozialei aurre egiteko; eta 4) kolektibo horri zuzendutako laguntza espezializatua ez da nahikoa, eta ez ditu adoptatu baten bizitzako etapa guztiak estaltzen.

4. Analisia

Orain arte ikusi denez, adopzioak babesgabetasun-egoeran dagoen adingabe bati familia bat eskaintzeko aukera ematen du; hala ere, ondo tratatu beharreko gaiak ere ekartzen ditu berekin, adoptatuari modu negatiboan eragin ez diezaioten. Beraz, hurrengo puntu osoan adopzioarekin lotura estua duten hiru gai jorratuko dira, eta horrek adoptatutako pertsonengan duen eragina aztertuko da, batez ere nazioartean adoptatutakoengan, eta kasu honetan, zehazki, jatorri txinatarreko adoptatuengan. Gai horiek honako hauek dira: lehenik, maila psikosozialean sortutako zailtasunak; bigarrenik, zailtasunei aurre egiteko eskainitako baliabideak; eta, azkenik, pertsona adoptatuek bizitzan zehar izan dituzten zailtasunei aurre egiteko garatu dituzten estrategiak.

¹ Agertzen diren izen guztiak asmatuta dira, benetako pertsonen identitatea eta konfidentzialtasuna babestu eta bermatzeko.

4.1. Eragin psikosozialak eta zailtasunak

Adoptatutako pertsonak adoptatu gabeko pertsonak ez dezala, nahiz eta hazkuntza eta garapen pertsonaleko etapa berberetatik igaro, zailtasunak biderkatzeaz gain, handiagoak ere badira kudeatzeko orduan, sortzen duten ziurgabetasun-maila dela-eta. Gainera, bizitzako hainbat esparrutan agertzen dira, hala nola sozializazioan, autoestimuan eta autokontzeptuan, psikoemotionalan, identitatearen eraikuntzan, arrazakeria-egoeretan, etab. Teknikari profesionalaren arabera, adoptatutako pertsonen kasuan, zailtasun horien guztien jatorria bizi izandako abandonu-esperientzia da:

Nire ustez, abandonuaren beldurrarena. Iraunkorra den zerbait da, eta kontzientzia handirik ez badago edo horri buruzko nolabaiteko lanik egin ez bada, sarritan azaleratzen da. [...] Nire ustez, abandonuaren beldurra oso ezaugarri garrantzitsua da, eta oso presente dago beti abandonuaren biktimgan.

4.1.1. Eremu soziala

Hori aipatu ondoren, orain eremu ezberdinetan bizi diren zailtasunei bide emango zaie, eta horietako lehena eremu soziala da. Esparru horretan bizi izan diren zailtasunak komunak zein banakakoak izan dira, eta honako hauek dira nabarmenenak: elkarriketatuek esan dute lotura oso estuak sortu behar dituztela, hausteko, baztertzeko edo bertan behera uzteko beldurrez; eta, horrekin batera, Verhulst *et al.* (1990) aurretik adierazitakoarekin lotuta, laguntalde oso txikien edo oso itxien zirkuluetako kideak dira, edo ez dute zuzenean lagunik izan. Horren ondorioz, elkarriketatuetako batek adierazi du mendekotasun-sentimendua izateko joera duela.

Horrekin batera, elkarriketatutako zazpi elkarriketatuetatik hiruk adierazi dute jendeari joaten uzteko zailtasunak dituztela, edo, joanez gero, oso dolu gogorra pairatzen dutela. Aldi berean, harreman berriak (lagunartekoak) hasteko zailtasunak izaten dituztela, eta, ondorioz, eremu sozialean antsietatea izateko edo antsietate sozialerako joera dutela. Hori bat dator Howard *et al.* (2004), Pitula *et al.* (2014) eta Verhulst *et al.*-ek (1990) esaten dutenarekin, izan ere, horiek adierazten dute nazioarteko adoptatuek zailtasun gehiago dituztela bai lagunak egiteko orduan, bai haiei eusteko orduan ere. Pertsonakiko segurtasunik eta konfiantzarik eza ere pairatzen dute, bizitako esperientziengatik, ahoz erasotutako direlako pentsamendua dutelako:

Oraindik askotan ez dut pertsonengan erabat konfiantzarik izaten. [...] Agian ez du asmo txarririk, baina nik uste dut hitzez erasotzen didala (Paula, konfiantza ez izatearen inguruan).

Aipatzekoa da zazpi elkarriketatuetatik bik esan zutela ez zutela arazorik izan esparru horretan; izan ere, batek beti ikastetxe berean ikasi zuelako

batxilergora arte, eta horregatik txikitatik lagun eta ikaskide talde berarekin egon zen; eta bestea, aldiz, beti herri berean bizi izan delako, beraz, pertsona guztiek ezagutzen dute txikitatik, hots, Espainiara heldu zenetik:

Nik badaramatzat nire lagunekin, haurtzarotik, hau da, haur, lehen eta bigarren hezkuntzatik pertsona horiekin guztiekin pasatu egin ditut, jende horrekin. Orduan, etapa horietan ez nuen arazorik izan (Claudia).

Ikus daitekeenez, ingurune berberaz inguratuta egotea erabakigarria izan da; izan ere, horrek ez die egin abandonatuak, baztertuak edo lotura sendoak sortzeko beldurrari aurre egiteko beharra. Garrantzitsua da hori nabarmentzea, pertsonaren profilaren eragina ikus daitekeelako hemen; izan ere, bien egoera horrela izan ez balitz, bizi izandako errealitatea desberdina izan zitekeen, zehazki, elkarriketatutako beste emakumeek aipatu dutena.

Adierazitako zailtasunez betetako errealitate horrek oso harreman estua du baztertuak izateko beldurrarekin eta onartuak ez izatearekin, eta, hain zuzen ere, beldur horrek eta berekin datozen pentsamendu negatiboek geldiarazten edo zailtzen dituzte lotura berriak sortzeko eta diren bezala agertzeko orduan.

4.1.2. Autoestimua eta autokontzeptua

Elkarriketatuek adierazi dute zailtasunak izan dituztela autoestimuan eta autopertzepzioaren esparruan ere. Zehazki, hiru elkarriketatuk aipatu dute autoestimu txikia eta ezegonkorra izan dutela, eta horietako batek azaldu zuen bezala, ezegonkortasun horren arrazoia gehien aipatu den beste zailtasun bat da: kanpo-onarpenaren premia larria. Onarpen zehar hori pertsonak berak duen segurtasun faltagatik gertatzen da, elkarriketatuek berak gutxiagotasun-sentimendua zuela adierazi baitzuen. Aipatutako zailtasun hauek guztiak bat datoz Child Welfare Information Gateway-k (2013) eta Hawkins *et al.*-ek (2007) alde aurretik adierazitakoarekin, izan ere, autoestimu eta konfiantza propioa baxua eta gutxiagotasun-sentimendua presente egon dira elkarriketatutako horietan:

Horrek gogorarazten dit ni ezberdina izateagatik beheko planoan jartzen nintzela. [...] Ni oso maila baxuan jartzen naiz, nik uste ditudan gauza guztiak besteena entzutean okerrak direla sentitzen ditudalako (Nuria).

Izan ere, gutxiagotasun-sentimendu horrek, autoestimuan ezegonkortasun hori sortzeaz gain, konplexu desberdinak sortzea ere eragin die, adibidez, desberdinak direla sentiaraztea eta sentitzea. Aipatzekoa da elkarriketatuek desberdintasun horiek negatibotzat hartzen dituztela, eta ez beren pertsonaren beste ezaugarritzat, eta horrek gutxiagotasun-sentimendu hori egotea eragiten du.

Era berean, azpimarratu behar da zazpi elkarrizketatuetatik bostek etengabeko erreferentzia egiten ziotela fisikoari autoestimatu baxuaz hitz egitean, zailtasun hori eragina zuelako. Izan ere, San Martinoren (2014) esanean, fisiko ezberdina izateagatik iruzkin edo jarrera diskriminatzaileak jaso dezakete, bere jatorria adoptatuari gogorarazten diotena. Aipatutako eta ohiko zailtasunak honako hauek dira: mendebaldearen edertasunean ez sartzea eta, horren ondorioz, itsusiak ote diren etengabe galdetzea, eta,aldi berean, fisikoki gutxiagotasuna sentiarazteko joera eta haietako batzuek bere fisikoari onartzeko zailtasuna adierazten dute:

Denbora behar duzu ez zu ez beste inor edertasun-kanon bat izango ez dela barneratzeko, baina, gainera, beste herrialde batekoa zarela kontuan hartuta, orduan pentsatzen duzu, "ez naiz inoiz izango Espainian dauden modeloetako bat" [...]. Beraz, denbora beharko duzu dena onartzeko (Claudia, mendebaldeko edertasunenean ez sartzearen inguruan).

Fisikoa pertsona baten aurkezpen-gutuna da, eta kontuan hartuta adoptatutako txinatar jatorriko pertsonak gainerakoek ez bezalako ezaugarriak dituztela, alde horiek areagotu egiten dira, horiek gainerakoekiko duten alde bakarra izan ere. Elkarrizketatutako guztiek aipatu dute hori eta, beraz, ikus daiteke, kasu honetan, profilak ez duela inolako eraginik, pertsona edozein dela ere, guztiek sentimendu bera erakutsi dutelako.

4.1.3. Norbanako nortasunaren eraikuntza

Nazioartean adoptatutako pertsonen ezaugarriak handienetako bat beren nortasuna eraikitzeke orduan duten zailtasuna da; izan ere, pertsona adoptatuek beren buruari buruz egiten duten eta sortzen zaizkien galderei erantzuteko orduan zalantza gehiago izango dituzte. Hain zuzen, Rosseren (2013) arabera, zalantza eta galdera horiei erantzutea zailagoa da nazioartean adoptatutako pertsonentzat, besteak beste, informaziorik ez dutelako. Gainera, gerta daiteke zailtasunek berak oztopatzea eraikuntza-prozesu hori, hala nola elkarrizketatutako zazpitik hiruk aipatu dutena: adoptatua izatearen eta jaioterriaren ukapena, horrek ezberdin izatearen sentimenduekin etengabe harremanetan egotea eragiten zuelako eta, elkarrizketatutako horietako batek dioen bezala, jatorri txinatarreko adoptatua izatea negatibotzat ere hartzen zuelako, harekiko ekintza arrazista eta diskriminatzaileen iturri zelako. Horren inguruan, alde zuzen adierazi den moduan, Mugicak (2012) hurrengoa adierazi zuen: nazioartean adoptatutako pertsonak norberaren irudiariekiko eta gorputzeko atalekiko arbuioa senti dezaketela:

Ez zitzaidan gustatzen adoptatua nintzela edo asiarra nintzela esatea, beste ezer baino gehiago, beti horrela sartu zirelako nirekin eta zerbait txartzat hartzen nuelako (Claudia).

Elkarrizketatutako batzuek aipatu zuten beste zailtasun bat beste pertsona batzuegan islatzeko zailtasuna da, familia-ingurunean, zehazki. Izan ere, txinatar jatorriko seme-alabak dituzten adopziozko familiak direnez, antzekotasun horretan dagoen distantzia hori askoz handiagoa da, eta, beraz, zailagoa da haien familiako kideengan antzekotasun horiek ikustea. San Martinoren (2014) arabera, desberdintasun horiek etengabe nahastuko dute adoptatua bera eta kanpoko jendea; izan ere, adoptatuaren kanpoko irudia eta hura identifikatzen denarekin ez doaz eskutik. Zailtasun horrekin batera, elkarrizketatutako batek bere bizitzaren historia osatzeko zailtasunak dituela aipatu zuen:

Gaur egun oraindik nire historia, nire bizitza historia osatzeko zailtasuna daukat. Esan nahi dut oraindik ere nire bizitzaren historia osatzeko zailtasunak ditudala, baina ezin dut Txinakoa naizelako eta hango informaziorik ez dudalako (Jone).

Hemen, profilak pertsonarengan duen eragina ikus daiteke; izan ere, Txinan jaio denez, askoz zailagoa da familia biologikoari buruzko informazioa lortzea, nazioarteko adopziozko beste herrialde batzuekin alderatuta. Hori gertatzen da Txinan legez debekatuta zegoelako haurtxoak abandonatzea, eta hori eginez gero, zigorra oso gogorra zen. Beraz, guraso biologikoek ez zuten horren erregistrorik uzten; eta horregatik, hain zuzen ere, lortzen den informazioa oso urria edo batere ez da.

4.1.4. Arrazismo-egoerak

Halaber, adoptatutako pertsonak, ezaugarri fisiko desberdinak eta beste arraza batekoak izateagatik, arrazakeria-egoerei aurre egin behar izaten diete. Diskriminazio-ekintza hori gune askotan bizi da, eta elkarrizketatu gehienak nabarmendu dituztenak hauetatik hurbil ez dauden zirkuluak, ikastetxeak (batez ere eskoletan eta institutuak) eta kalea izan dira, batez ere lehen eta azken aipatuetan, ezezagunen aldetik. Hori gutxi izango balitz, ere adierazi dute etengabe jasaten dituztela Martín-Rodríguezek (2018) definitutako mikroerasoak beren pertsonari eta intimitateari buruzko galdera deseroso eta inbaditzaileak, pertsona adoptatua deseroso sentiarazteko ere iritsi arte.

Horrelako gertaerak gertatzen diren beste gune bat ikastetxeetan da, esan bezala, eta elkarrizketatu gehienak adierazi dute ekintza arrazistak, hitzeko bullyinga eta bullying psikologikoa ere jasan dituztela ikaskideen aldetik. Gainera, aurretik Mugicak (2012) adierazi duen moduan, jasaten dituzten arrazakeria-eta diskriminazio-ekintza horiek egunerokoak izan omen daitezke. Kasu horietan, gainerako ikaskideek eta ikastetxeak berak jarrera arrazista horien aurrean izan zuten isiltasuna eta tolerantzia arazo gisa identifikatu duten gauzetako bat da:

Nire ikasgelan, 20 eta piku geunden, ia 30 pertsona, eta bat nirekin sartzen zen eta inork ez

zuen ezer esaten. Benetako arazoa isiltasuna izan zen, besteen isiltasuna.[...] Hori gertatzen uztea (Laura).

4.1.5. Eremu psikosemozionala

Orain arte aipatutako zailtasun guztiek emozio desberdinak eragin dizkiete elkarrizketatuei, eta emozio horiek kudeatzeko zailak izan dira, aurre egin behar izan dieten egoeren ondorioz, eta horiek ere zailtasunak eragin dituzte eremu psikosozialean. Adierazitako emozio, besteak beste, beldurra, amorrua, errua, bakardadea, ezjakintasuna, ezinegona... izan dira, eta zailtasunak, emozioak bezala, banakako zein taldeko mailan izan dira.

Elkarrizketatuetako batek aipatu zuen erru eta zor sentimendua duela amarekiko, eta, beraz, ahal duen guztian atsegin ematen saiatzen dela, berak esaten diona egitera ere iritsiz, azaltzen ez dakien zerbaiten beldurrez. Elkarrizketatuetako batzuek partekatzen duten beste zailtasunetako bat ukatuak edo abandonatua izatearen beldurra da, lehen aipatu den bezala. Horrekin pixka bat lotuta, beste elkarrizketatu batek bakardade- eta marjinazio-sentimendua bizitzea izan da aipatu duen beste zailtasunetako bat; izan ere, elkarrizketan adierazi duenez, urte batzuetan bakarrik geratu zen, eta, horren ondorioz, gainerakoengandik isolatu egin zen:

Erabat isolatu nintzen guztiengandik. [...] Ni bakarrik geratu nintzen, nik ez nuen lagunik (Paula).

Adierazitako zailtasunekin batera, bi elkarrizketatuk aipatu zuten zailtasunak dituztela sentimenduak, beldurrak edo emozioak kanporatzeko, eta ondorio fisiko zein psikologikoak eragiten dizkiela horrek. Zailtasun horretaz gain, hainbat elkarrizketarengan amorruek eragindako emozioa ere agertu da, batez ere, komunitate txinatarraren zati bati ematen zaion tratuari buruz hitz egiterakoan.

4.2. Zailtasunak eta baliabideak

Adopzio ondoko zerbitzuak eta adopzioaren etapa honetan bideratutako kanpoko baliabideak pertsona adoptatuei zuzenduta daude, adopzioari eta adopzio-izaerari dagokienez garapen pertsonalean sor dakizkiekeen beharriari erantzuteko.

Horren ildora, elkarrizketatutako teknikari profesionalak adierazi du Euskadin eremu pribatuan Agintzari dagoela, eta gero psikologoaren eta psikiatren gero eta kontsulta gehiago, gai horri buruzko behar adinako ezagutza baitute. Publikoan, hau da, Administrazioetik, hiru zerbitzu mota daude: adopziozko familietan integratzeko prozesuetan pertsona laguntzen dien baliabide bat, jatorriak bilatzeko zerbitzu bat eta jatorriarekin bitartekaritza-zerbitzu bat. Lehen hori adopzio nazioartean gertatzen da, eta beste biak, adopzio mota bietan, nahiz eta

nazioarteko adopzioen kasuan zailagoa izan. Era berean, bi horiek jakintzarekin, ezagutzarekin, jakiteko eskubideari erantzuten dion informazioa izatearekin eta bitartekaritzarekin lotuta daude, berriz elkartzea errazteko.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da berriro azaltzea aurreko urteetan, batez ere, 90. hamarkadaren eta 2.000 urtearen hasieraren artean, adopzio ondoko zerbitzuak ez zeudela oso garatuta, urriak zirelako eta ez zegoelako ebaluaziorik edo daturik eraginkorrenak zein ziren zehazteko (Palacios eta Bronzinsky, 2005). Horrenbestez, ezin izango litzateke gaur egun eman daitekeen aholkularitza edo laguntza bezain eraginkorra eman; izan ere, denboran zehar adopzio ondoko zerbitzu gehiago egon dira eta gehiago garatu dira lehen aipatu diren arazo horiek estaltzeko.

Beraz, hori gogoan hartuta eta ikus daitekeenez, elkarrizketatutako pertsonak ez zuten aukerarik izan benetan behar bezalako laguntza jasotzeko bizitzan zehar izan dituzten egoera edo zailtasun desberdinei aurre egiteko, nahiz eta adopzio osteko zerbitzuak egon. Are gehiago, baliabide horien garapena eta profesionalizazioa bere garaian lehen belaunaldietako nazioarteko adoptatuetako adopzio-familiek erakunde publiko zein pribatuei egiten zizkieten eskaeren ondorioz hasi zen gertatzen. Beraz, esan daiteke gaur egun dauden baliabideak haziz joan direla adoptatutako pertsonak egin duten aldi berean.

Aipatutako azken ideia hori erreparatuz, esan behar da elkarrizketatutako zazpi pertsonetatik bik soilik, Sarak eta Jonek zehazki, horrelako zerbitzuak erabili zituztela, eta horiek Ume Alaia eta AMADA elkarteek eskaini zituztela. Alde batetik, Jonek dioen bezala, Ume Alaia adopziozko familien elkarte bat da eta haurtzarotik nerabezarora arte erabili zuen baliabide hau. Elkarte honetan beste adoptatu batzuekin hitzaldietara eta tailerretara joan zen. Bestetik, Sarak dio AMADA elkarteak adopziozko familien elkarte dela ere bai, eta aipatu berri den elkarrizketatuek bezala, honek ere baliabide hau erabili zuen haurtzarotik nerabezarora arte. Elkarte honetan, hau da, AMADAn jolas- eta animazio-jarduerak egiten zituen, eta beste haur adoptatu batzuekin harremanetan jartzen zen. Ikus daitekeenez eta kontuan hartuz Palacios-ek (2007) emandako adopzio osteko funtsezko lau motak, esan daiteke Ume Alaia eta AMADA zerbitzuek hezkuntza- eta prestakuntza-arlokoak eta laguntza-sareak bideratzekoak direla, elkarrizketatuek esandakoaren arabera.

Bi elkarrizketatu horiek baliabide horiek erabili izana hainbat arrazoiengatik eman daiteke, besteak beste, bere identitate pertsonalaren zati hori pixkanaka eta modu naturalean landu nahi izan zutelako txikitatik. Hori ezaugarri positiboa da, izan ere, horrek adierazten du txikitatik onartuta dutela bere pertsonarengan berez doan adopzio-izaera. Horretaz gain, bi elkarrizketatuek komunean dituzten bi gauza aipatu dituzte: baliabide horiek haurtzarotik nerabezarora arte erabiltzea eta adoptatutako beste haur batzuekin harremanak izatea:

Beste haur adoptatu batzuekin harremanetan jartzeko eta zu bezalako jende gehiago dagoela, agian, harrerago sentitzen zara eta zure emozioak edo gaiarekin nola sentitzen zaren adierazteko pixka bat irekiago zaudela ikusteko modu bat da (Jone).

Orduan, adoptatua zara eta talde honetako pertsonen porroi bat ere izan daiteke [...]. Kontua ez da zu bakarrik zaudela, baizik eta askoz gehiago daudela egoeran. Alde horretatik, uste dut positiboa dela (Sara).

Hori oso garrantzitsua da, etapa horietan hasten direlako jabetzen adoptatuak direla, zer esan nahi duen adoptatua izateak, eta orduan hasten dira gehien identitatearekin eta adopzioarekin lotutako galderak egiten. Beraz, egoera berean dauden pertsonekin harremanak izateak pertsonalaren eta norberaren nortasunaren garapena erraztu dezake, baita adoptatuek bere buruari buruz izan ditzaketen zalantzetako batzuk argitu ere, adopziozko gurasoek duten ezagutzatik eman ditzaketen erantzunak nahikoak izan ez dezaketenak.

Dena den, oso garrantzitsua da azpimarratzea ezen, elkarrizketatu horiek adopzio osteko zerbitzu horiek erabili zituzten bezala, beste pertsona batzuek ez dituztela zerbitzu horiek erabiltzen, oraindik ez direlako horretarako prest sentitzen. Hain zuzen ere, horixe gertatu zitzaion elkarrizketatuetako bati: baliabide horien erabilera birplanteatu zuen arren, emozionalki ez zegoen prestatuta, baina, bakarrik/ arraro ez sentitzen eta ulertua sentitzen lagunduko izan ziokeela.

Lagunduko zidan. Uste dut asko lagunduko zidala hori erabili izanak, baina uste dut heldutasun emozional bat eduki behar dela hori egiteko, batez ere, nor zaren onartzeko kasuan, agian, adibidez, nor zaren jakiten laguntzeko (Paula).

Aipatutako azkenari dagokionez, kasu honetan, emozionalki prestatuta ez egotea gerta zitekeen txikitari jatorrizko herrialdearekiko eta Txinarekin lotutako guztiarekiko arbuio handia zuelako, deserotasun sentazioa sortzeaz gain, desberdina zela gogorazten ziolako. Gainera, berak adierazten duen moduan, garai hartan oraindik ez zuen bere jatorria onartzen.

4.3. Pertsona adoptatuek zailtasunei aurre egiteko garatutako estrategiak

Aurreko puntua kontuan hartuta, elkarrizketatutako pertsonak sor dakizkiekeen zailtasunei aurre egiteko baliabide pertsonal desberdinak garatu dituzte, eta puntu hau elkarrizketatuek izan duten egoera zailetatik aldentzeko estrategia pertsonal arrakastatsuen abiaraztean zentratzen da. Beraz, zazpi elkarrizketatuetako lauk garatu duten estrategietako bat honako hau izan da: nor bere burua onartzea eta lantzea, eta horrela adierazten du elkarrizketatuetako batek ideia hori:

Hartu dudak jarrerarik onena da onartzea nor naizen, hau da, neure buruarekin lan egitea ni adoptatua eta txinatarrak naizela eta espainiarra ere banaizela (Laura).

Hori arrakasta estrategia bat da, baita Marcosek (2011) adierazten duen adopziozko literaturan aipatzen den estrategietako bat ere, hainbat arrazoirengatik, besteak beste, estrategia horren arrakasta erabat onartzen denean pertsona baten bizitzako gainerako esparruetara hedatzen delako. Beraz, hori kontuan hartuta, estrategia horren onurek ez dakarte soilik pertsonak bere bizitzan sor dakizkiekeen zailtasunen aurrean defentsa-mekanismo on bat izatea, baizik eta egonkortasun emozional bat ere badakar berekin.

Aipatutako estrategiarekin batera, elkarrizketatuek garatu dituzten eta komunean dituzten estrategia hauek honako hauek dira: lehenik, egoerari edo gertatutakoari jaramonik ez egitea eta denbora eta energia pertsonalik ez ematea; bigarrenik, probokazioari ez erantzutea; eta, hirugarrenik, gerta dakizkiekeen egoeren aurrean kritikoa izatea eta arrazoitzea. Hiru estrategia horiek ekintza arrazista edo diskriminazio-ekintza egiten duen pertsonari protagonismoa kentzen dion jarduera-ildo berari erantzuten diote, eta hori egiten dute, hain zuzen ere, ez dielako mesederik egiten, guztiz kontrakoa, kalte egiten baitie.

Aipatu behar da estrategia mota horiek barneratu eta abian jartzen direla horrelako egoera bat baino gehiago bizi izan direnean, hots, denboran iraun dute, hau da, ez dira noizbehinkakoak izan. Beraz, ondorioztatzen da beste pertsonak aldatu behar duela bere jokabidea eta hori da, hain zuzen, elkarrizketatuek garatu egin duten beste estrategietako bat:

Hasieran, min pixka bat ematen dizu, oso seinatua sentitzen zarelako, eta, gainera, modu negatiboan, horrela egiten dutelako, baina iristen da une bat non arazoa beti besteena izan zela (Laura).

Orain arte azaldutako estrategiekin batera, elkarrizketatuek kulturari eta jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa eskuratzean oinarritutako estrategiak ere garatu egin dituzte, eta horiek hurrengoak dira: lehenik eta behin, aipatu berri dena, jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa lortzea litzateke (gastronomia, ohiturak, artea, historia); bigarrenik, ezaugarri fisiko berberak dituzten pertsonen buruzko edukia ikusteko interesa izatea, zehazki, ikus-entzunezko edukia eta entretenimenduaren mundukoa; eta azkenik, egoera eta jatorri bereko pertsona gehiagorekin harremanetan hastea. Izan ere, elkarrizketatuen arabera, egoera berean dagoen jendearekin topo egiteak ulertuak eta erabat onartuak sentiarazten die. Oraintxe bertan aipatutako estrategiak diskurtso bera duten pertsonetatik datoz, alegia, nahiz eta bakoitzak modu ezberdinean bizi adopzioa (Marcos, 2011), guztiak iritsi dira beren bizitzako puntu batera, non eroso sentitzen diren gai honi buruz hitz egiterakoan.

Aipatzekoa da garatutako estrategia guztiak pertsona adoptatuek beraiek garatu egin izan dituztela denboraren poderioz eta horiek garatzeko prest zeudenean, izan ere, haien jatorriari arbuio egitean zietenean aski gerta gaitza zatekeen estrategia horiek garatu izana. Egia da, kasu bakoitzaren arabera, familiaren parte-hartzea ezberdina izan dela estrategia horien garapenean, batzuetan inplikazioa handia izanez eta beste batzuetan ez, baina denek komunean dute adoptatutako alaben izen txinatarra mantentzea erabaki izana. Baita adopzioaren gaia beti ikusi izan dutela gai arrunt gisa, adopziozko alabak behar izan duenean hitz egiteko ere.

Aipatu duten beste estrategia garatuak bat senideekin eta gertuko lagunekin hitz egitea da; hain zuzen ere, zazpi elkarrizketatuetatik lauk garatu dute. Lau horietako batek azaldu duenez, adopzioa bezalako gai bat, hain pertsonala, intimoa edo batzuetan, mingarria eta gizartearen gehiengoarentzat hain ezezaguna dena, oso gertuko jendearekin eta errealtate hori partekatzen dutenekin soilik hitz egin daiteke argi eta garbi. Beraz, hurbileko zirkulu batean gai honi buruz hitz egin ahal izateak segurtasuna ematen die, epaitua eta gutxietsiak izateko beldurrik gabe. Azken finean, gai honi buruz hitz egiteak bakardade-sentimendua, autoestimu baxua edo gatazka pertsonalak dakartzaten azpigai asko azaleratzen ditu (Marcos, 2011):

Beste tresna bat amarekin hitz egitea da, azkenean beti ematen dizkidalako iritziak, iruzkinak edo baldintzarik gabeko babesa, eta gero, gainera, oso ulergarria da, baita gertuko lagunekin hitz egitea ere (Maider).

Orain arte adierazitako estrategiak komunak izan dira, baina horietaz gain, banakako estrategiak ere erabili dituzte, esaterako, elkarrizketatuetako bat adierazi zuen eguneroko batean sortu zaizkion arazoak idaztea, kirola egitea eta meditatzea izan direla arrakastatsuak berarentzat, jarduera horiek egiteak ongizatea sortzen diolako. Aipatu behar da, bere ama psikologoa dela eta txikitatik horrelako jarduerak egitera animatu duela, batez ere aipatutako azkena. Beraz, datu hori kontuan hartuta, esan daiteke elkarrizketatuaren profilak eragina izan dezakeela jarduera jakin batzuk aurrera eramateko orduan, bestela, agian ez zituen martxan jarriko.

Era berean, indibidualki garatutako beste estrategia bat originala eta paregabea sentitzeko jarrera da eta horren oinarria da elkarrizketatuaren berezitasunak, kasu honetan fisikoak, zerbait berezi eta erakargarri gisa hartzea. Elkarrizketatu honen kasuan, berriz, Marcosek (2011) adierazten dituen adopziozko literaturan aipatzen diren estrategietako bat garatu egin du, hain zuzen, haren desberdintasunak onartzea. Bere buruarengan duen onarpen-maila oso altua da, besteek negatibotzat jotzen dutena positibo bihurtzen duelako eta harrotzeko zerbait bezala hartzen duelako, eta ez lotsatzeko edo ezkutatzeko zerbait bezala:

Ez naiz inoiz sentitu %100 kultura batean, ezta herrialde batean ere. Orduan, itxuraz edo fisikoki,

paregabera naizela sentiarazten dit horrek, hau da, originala sentitzen naiz, nolabait esateko (Claudia).

Bizitza-liburu bat egitea izan da beste elkarrizketatuetako bat garatu duen estrategia indibidualtako bat. Bizitza-liburua egitea adopzioak biltzen dituen alderdi desberdinei buruzko informazioa bilatzean datza, besteak beste, jatorrizko herrialdeari buruzko informazio zehatzago bilatzea (jaino den hiria ezagutzea, adibidez); laburki, historia pertsonalak dauzkan hutsuneak betetzea da. Estrategia hori gauzatzea pertsonaren profilaren arabera izan daiteke, txikitatik adopzio ondoko baliabideetara eta zerbitzuetara jo duten bietako bat izateagatik. Gainera, jatorri txinatarreko ahizpa adoptatua izateak eragina izan du bizitza liburua idazten hasteko erabakian, bere ahizpa lehenago hasia baitzen hori idazten. Hemen ikus daitekeenez, familiako pertsona batean bere burua islatuta eta ezaugarri fisiko berberekin edukitzeak lagundu egin dio elkarrizketatuari, Marcosek (2011) aipatzen duenaren justu kontrakoa, hain zuzen ere.

Zailltasun-egoerei aurre egiteko martxan jarri duten estrategietako bat Asiako jatorria izan gabe Asiako kultura gustuko duten pertsonak ezagutzea da. Izan ere, Asiako kultura gustuko duen jendea ezagutzeak hasieratik onartuak izango diren bermea dela islatzen da, hots, pertsona horiek ez dutela bere ezaugarrietatik diskriminaziorik jasango:

Ez idealizatuta, baina Asiako kultura gustatzen zitzaien zirkuluak aurkitu ditut, eta horregatik nik banekien pertsona horiek onartu egingo nindutela. Orduan ni errazera joaten nintzen, haiengana, zeren, gutxienez, aurretik badakit pertsona horiek nire arrazagatik ez nautela epaituko, askoz jota nire pertsonagatik, baina nire arrazagatik, behintzat, ez (Nuria).

Estrategia mota horrek hasiera-hasieratik talde baten barruan onartuta sentitzeko beharra asetzen du eta gainera, beste pertsona batzuentzat diskriminazio-arrazoi diren ezaugarri horiek, talde horientzat, hain zuzen ere, miresgarriak izan daitezke.

Aipatutako azken estrategietako bat litzateke txinatar jatorriko adoptatuekiko jarrera diskriminatzaileek minik ematen ez dutelako eta axola ez zaielako itxurak egitea. Estrategia hori martxan jartzearen helburua ondoeza lehenbailehen amaitzea eta gehiago ez luzatzea da elkarrizketatuetako batentzat. Ikus daitekeenez, hori defentsa-mekanismo psikologikoa da kanpotik jaso dezakeen erasoetatik babesteko, eta puntu kalteberetako bat ezkututzen du. Izan ere, horrelako egoerak mina edo frustrazioa eragin diezaioke alde aurretik Marcosek (2011) adierazten duen moduan:

Kalean iruzkinak jasotzearen inguruan, adibidez, ia beti izan da hori saihestea, hau da, saihesteko jarrera "hau ez da gertatu", momentu deserosoa eta mingarria azkar pasatzeko. "Hau ez da gertatu. Ez ikusiarena egingo dugu. Aurrera jarraituko dugu eta hizketan ari ginenaz hitz egingo dugu" (Laura).

Aipatutako azken estrategia enpatia garatzea izan da, eta elkarrizketatuetako bik aipatu dute. Elkarrizketatu horietako baten arabera, enpatia herabetasunaren kontrapuntu gisa erabiltzen zuen, eta lagunak egiteko edo besteengana hurbiltzeko tresna gisa emozioen ulermenetik.

5. Ondorioak

Adopzioa ondorio desberdinak dakartza adoptatutako pertsonengan eta haren eragina nabarmena da, batez ere, nazioartean adoptatutako eta arrazarteko adopziozko pertsonengan. Bereizketa hori egitea garrantzitsua da, desberdintasun batzuk daudelako nazioarteko adopzioaren eta arrazarteko adopzioaren artean; izan ere, aipatutako bigarrena zailtasun psikosozial ezberdinak dakartza berekin aipatutako lehenengoarekin alderatuta, eta zailtasun horietako batzuek lotura estua dute diskriminazio- eta arrazismo-ekintzekin. Hala eta guztiz ere, zailtasun psikosozial horiek azaldu izateak ez du esan nahi beti horrelako zailtasun psikosozialak eman behar direnik, edo bestelakoak ez daudenik, azken finean, nazioarteko eta arrazarteko adoptatuek aurre egin beharreko zailtasunak ugariak dira.

Garrantzitsua da berriro gogoratzea, sarreran eta artikulua muinean aipatu den bezala, ikerketa artikulua hau esplorazio-ikerketa baten ondorioa dela eta lortutako emaitzak ikerketan erabilitako metodologiaren arabera izan direla. Horrenbestez, hori ikuste aldera eta analisian ikusi den bezala, kontuan hartuta erabilitako lagina, elkarrizketatu guztiak desberdintasun-sentimenduari etengabe aurre egin diote beren bizitzako unerak batean edo hainbatetan. Ideia horrek hainbat zailtasun sortu dizkie, hala nola, beren jatorriari uko egitea edo haien burua onartzeko zailtasun nahikotxo izatea gainerako pertsonen ekintza diskriminatzaileengatik. Dena den, horren inguruan esan daiteke adopzio-herrialdeak eragin zuzena izan duela desberdina izatearen etengabeko sentimendu horri aurre egiterako orduan, izan ere, elkarrizketatutako adoptatuen pertzepzioaren arabera, Espainian egon daitekeen kultura- eta arraza-aniztasuna beste herrialdeena baino txikiagoa izan daiteke, edo, gutxienez ez hain nabarmena. Horrek, ikusi ahal izan denez, eragin handia izan du elkarrizketatutako pertsonen garapen psikosozialean, ez baitute erreferentziako pertsonarik izan txikiak zirenean, eta, ondorioz, une batzuetan bakarrik sentitu dira.

Horrekin batera, bizi izandako zailtasunak arlo guztietan agertu egin dira, besteak beste, emozionalean, sozialean, psikologikoan eta abarretan. Egia da pertsona adoptatu guztiak ez direla zailtasun mota beretatik pasatzen, baina kasu zehatz honetan, jatorri txinatarreko elkarrizketatutako guztiak aipatu dituzten zailtasunak berdinak edo oso antzekoak izan dira sozializazio, autoestimua eta autokontzeptu, identitatearen eraikuntza, arrazismo eta psikoemozional egoeretan. Honek adierazi dezake adopzio osteko prozesu antzeko bat bizi izan duten

jatorri txinatarreko adoptatuen aurrean gaudela, nahiz eta elkarrizketatu bakoitza adopzioaren gaia modu desberdinean lantzen duten.

Azpimarratzekoa da pertsona adoptatu guztiak, edozein jatorri dutela ere, amankomuneko ezaugarri bat dutela: abandonu-prozesu baten biktimak dira adin oso goiztiarretan. Horren ondorioz, zailtasun handiagoak izaten dituzte, adibidez, beste pertsona batzuekin adiskidetasun-loturak edo lotura erromantikoak sortzeko edo nortasuna eraikitzeko prozesuan. Are gehiago, azken hori are zailagoa da txinatar jatorriko adoptatuentzat jatorrizko herrialdearen testuinguru soziopolitikoak zela eta.

Era berean, trebetasun pertsonalen garapena gakoa izan da zailtasun psikosozialei aurre egiteko, izan ere, horiei esker denboraren poderioz, zailtasunak eragin gutxiago izan dituzte haiengan, ez eragiteko mailara iritsi arte kasu batzuetan. Aipatzekoa da analisia egiterakoan, ikusi egin dela elkarrizketatuek adierazitako horietako gehienak amankomunak izan direla, eta horrek arreta deitu du; izan ere, zailtasun berdinei edo oso antzekoei aurre egiten dieten bezala, horiekin hobeto kudeatzeko antzeko estrategiak ere garatu dituzte, beraz, honek adierazi dezake elkarrizketatutako jatorri txinatarreko adoptatuen profilak paper garrantzitsua izan dezakeela. Izan ere, jatorri desberdineko eta nazioarteko beste adoptatu batzuek bestelako trebetasunak gara ditzakete, zailtasunak desberdinak izateko aukera dagoelako.

Izandako baliabideei erreparatuz, eskuratutako informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Bizkaiko probintziara mugatzen da, hain zuzen, teknikari profesionalak emandakoa. Beraz, hori kontuan hartuta eta Jonek aurretik adierazitakoa, ezin liteke ebaluazio bat egin hauen inguruan; are gutxiago, jakinda soilik elkarrizketatu guztietatik soilik bat horiek erabili dituela. Alegia, gainerako elkarrizketatuek adierazi zuten ez zutela zerbitzu horien berri, edo oraindik ez zeudela prest norabait joateko; horregatik, ezin izan da informaziorik lortu gainerako probintzietatik. Dena den, egia da ikus daitekeela baliabide mota horiek honi lagundu egin ziola bere garaian sortu zizkion beharrezkoak ezaltzeko edo zeuzkan zalantzak argitzen laguntzeko, elkarrizketatuen esanean. Horrenbestez, pentsa daiteke pertsona adoptatuei zuzendutako baliabideak edo zerbitzuak denborarekin profesionalizatuagoak bihurtu egin direla.

Orain arte adierazi eta azaldu denaren arabera, ikus daiteke pertsona adoptatuek, kasu honetan, elkarrizketatutako txinatar jatorriko adoptatuek hainbat zailtasun psikosozialei aurre egin behar izan dietela, eta zailtasun horiek mingarriak izan direla, eragin dien sufrimenduagatik. Gainera, haien bizitzan zehar, beren kabuz eta denboraren poderioz, ikasi behar izan dute onartzen adoptatua izateak dakartzan ondorioak eta horrek dakartzan dueluak gainditzen, jatorrizko herrialde eta kulturarekin erabateko etena gertatzen delako. Eten horrek beti iraun dezake, edo denborarekin berriro heldu daiteke, baldin eta adoptatua prest badago bere historiaren zati horrekin

berririo konektatzeko. Azken finean, zati hori, nolabait, onartzeko mingarria da, eta ziurgabetasun handia eragiten du, adoptatuari sortzen dizkion galdera guztiak direla-eta, askotan erantzun barik geratuz, txinatar jatorrizko adoptatuen kasuan, hain zuzen.

Bizitzako aldi horrek, epe luzera, ondorioak dakar, eta, horren ondorioz, pertsona adoptatuak ezaugarri pertsonal jakin batzuk gara ditzake, orain arte azaldu diren aurre egin beharreko zailtasunez gain, nazioartean adoptatutako pertsonak bakarrik uler ditzaketenak. Beraz, hori kontuan hartuta eta artikulua honi amaiera gisara, esplorazio-ikerketak honetatik atera diren ondorio hauek etorkizuneko sakoneko ikerketak gehiago egitea ahalbidetu dezake. Izan ere, beharrezkoa eta garrantzitsua izango litzateke gizarteak ere gutxieneko ezagutza bat izatea pertsona

adoptatuek eta, batez ere, arrazarteko adopzioak adoptatuek bizi behar dituzten zailtasunei buruz. Ezagutza hori sortu, hedatu eta gizartearen lan egiteak aldaketa asko ekarriko litzuzke.

Eskerrak

Artikulu hau, Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean egindako "Adopzioa eta zailtasun psikosozialak: txinatar jatorriko gazteen kasua" gradu amaierako lanean oinarritzen da. Eskerrak eman nahi dizkiot lan horren zuzendaria izan den Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe irakasleari, artikulu hau idazteko emandako laguntza eta jarraibideengatik.

Erreferentzia bibliografikoak

- ADROHER, S. eta BERÁSTEGUI, A. (2000): "La adopción internacional: una nueva migración", *Migraciones*, 8. zk., 251-284. or., <<https://revistas.comillas.edu/index.php/revistamigraciones/article/view/4417>>.
- ALBEROLA, S.; BERÁSTEGUI, A.; DE ARANZÁBAL, M.; CORTÉS, A.; FUMADÓ, V.; GARCÍA, M.; HERNÁNDEZ, A.; LIRIO, J.; OLIVÁN, G. eta PARRONDO, L. (2008): *Consenso en adopción internacional. Guía de evaluación pediátrica en adopción para profesionales sanitarios*, Ministerio de Educación, Deporte y Política Social; Consejería de Familia y Asuntos Sociales de la Comunidad de Madrid y Federación CORA, <<https://sepeap.org/wp-content/uploads/2021/07/Guia-Cora-de-la-Adopcion.pdf>>.
- AMORÓS, P. eta FUERTES, J. (1996): "La práctica de la adopción", in DE PAUL, J. eta ARRUABARENA, I. (ed.), *Manual de protección infantil*, Bartzelona, Masson, 447-490. or.
- BERÁSTEGUI, A. (2008): "El tiempo de la espera en la adopción internacional: vivencia de la espera y estrategias de afrontamiento", *Psicothema*, 20. lib., 4 zk., 551-556. or., <<https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=72720407>>.
- BERMÚDEZ, M. (2007): "La valoración de la idoneidad o no idoneidad de los solicitantes de adopción. Análisis de un caso real" [aurkezpena], Jornades de Foment de la Investigació, Castellón, Universitat Jaume I.
- CÁCERES, I. (2021): "El desarrollo social de menores adoptados internacionalmente e institucionalizados. Habilidades sociales y relaciones con iguales a lo largo de la infancia y la adolescencia" [doktore-tesia], Universidad de Sevilla.
- CHILD WELFARE INFORMATION GATEWAY (2013): *El impacto de la adopción en las personas que han sido adoptadas*, Washington DC, U.S. Department of Health and Human Services, Children's Bureau.
- CONFERENCIA DE LA HAYA DE DERECHO INTERNACIONAL PRIVADO (2013): *Convenio de 29 de mayo de 1993 relativo a la Protección del Niño y a la Cooperación en materia de Adopción Internacional*, <<https://www.hcch.net/es/instruments/conventions/full-text/?cid=69>>.
- GARCÍA, B. (2022): "Gráficos estadísticos interactivos de adopción nacional e internacional en España (1997-2020)". *Asatlas.org*, <<https://www.asatlas.org/proceso-de-adopcion/estadisticas.html>>.
- HAWKINS, A.; BECKETT, C.; CASTLE, J.; GROOTHUES, C.; SONUGA-BARKE, E.; COLVERT, E.; KREPPNER, J.; STEVENS, S. eta RUTTER, M. (2007): "The experience of adoption (1) A study of intercountry and domestic adoption from the child's point of view", *Adoption & Fostering*, 31. lib., 4. zk., 5-16. or., <<https://doi.org/10.1177/030857590703100403>>.
- HOWARD, J.A.; SMITH, S.L. eta RYAN, S.D. (2004): "A comparative study of child welfare adoptions with other types of adopted children and birth children", *Adoption Quarterly*, 3. lib., 7. zk., 1-30. or., <https://doi.org/10.1300/J145v07n03_01>.
- HRAPCZYNSKI, K.M. eta LESLIE, L.A. (2019): "Do preparation for bias and cultural socialization protect against discrimination for transracially adopted adolescents?", *Adoption Quarterly*, 22. lib., 2. zk., 116-134. or., <<https://doi.org/10.1080/10926755.2019.1579136>>.
- KADLEC, M.B., eta CERMAK, S.A. (2002): "Activity level, organization, and social-emotional behaviors

- in post-institutionalized children", *Adoption Quarterly*, 2. lib. 6. zk., 43.-57. or., <https://doi.org/10.1300/J145v06n02_04>.
- MARCOS, J. (2011): *Rasgados: un viaje a la adopción internacional España-China*, Noufront.
- MARTÍN-RODRÍGUEZ, M.J. (2018): "La adopción internacional, estudios referentes a los vínculos de los adolescentes, búsqueda de identidad y percepción del apoyo social percibido con los pares", *Trabajo Social Hoy*, 86. zk., 37.-52. or., <<https://doi.org/10.12960/TSH.2019.0003>>.
- MIRABENT, V. (2014): "El adolescente adoptado: dificultades añadidas en el proceso de construcción de su identidad", *Temas de Psicoanálisis*, 8. zk., 1.-35. or., <<https://www.temasdepsicoanalisis.org/2014/07/15/el-adolescente-adoptado-dificultades-anadidas-en-el-proceso-de-construccion-de-su-identidad/>>.
- MÚGICA, J. (2012): "La discriminación de los niños y niñas de condición adoptiva" [aurkezpena], "Adingabe adoptatuen aurkako bazterkeriazko jarrerak prebenitzea" hizketaldia, Bilbo, <<https://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/12-PAAB-DISCRIMINACION-Y-ADOPCION-FEB.pdf>>.
- NELSON, L.R. eta COLANER, C.W. (2017): "Becoming a transracial family: communicatively negotiating divergent identities in families formed through transracial adoption", *Journal of Family Communication*, 18. lib., 1. zk., 51.-67. or., <<https://doi.org/10.1080/15267431.2017.1396987>>.
- PALACIOS, J. (2007): "Después de la adopción: necesidades y niveles de apoyo", *Anuario de Psicología*, 38 lib., 2. zk., 181.-198. or., <<https://raco.cat/index.php/AnuarioPsicologia/article/view/74194>>.
- PALACIOS, J. eta BRODZINSKY, D.M. (2005): "Recent changes and future directions for adoption research", in BRODZINSKY, D.M. eta PALACIOS, J. (ed.), *Psychological issues in adoption. Research and practice*, Westport, Prager, 257.-268. or.
- PITULA, C.E.; THOMAS, K.M.; ARMSTRONG, J.M.; ESSEX, M.J.; CRICK, N.R. eta GUNNAR, M.R. (2014): "Peer victimization and internalizing symptoms among post-institutionalized, internationally adopted youth", *Journal of Abnormal Child Psychology*, 42. lib., 7. zk., 1.069.-1.076. or., <<https://doi.org/10.1007/s10802-014-9855-z>>.
- RODRÍGUEZ, D. (d.g.): "China ya no es país de adopciones internacionales", *Gizadiberri.eus*, <https://www.gizadiberri.eus/es/articulos-periodisticos/desproteccion/China_ya_no_es_pais_de_adopciones_internacionales>.
- ROMÁN, M. (2010): "El apego en niños y niñas adoptados. Modelos internos, conductas y trastornos de apego" [doktorego-tesia], Sevilla, Universidad de Sevilla.
- ROSSER, A. (2010): *Evolución del proceso de adopción y satisfacción percibida por las familias adoptivas*, Valencia, Cortes Valencianas.
- (2013): "Adolescencia y adopción. Retos específicos" [komunikazioa], in XIV Congreso Virtual de Psiquiatría, Alicante.
- ROSSER, A.; BUENO, A. eta DOMÍNGUEZ, F.J. (2010): "Evolución de los menores tras la adopción: la familia adoptiva como figura de apego y contexto de reparación", *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 2. lib., 1. zk., 443.-453. or., <<https://www.redalyc.org/pdf/3498/349832325046.pdf>>.
- SAN MARTINO, M. (2014): "Identidad y orígenes en el menor adoptado", *Temas de Psicoanálisis*, 8. zk., 1.-20. or., <<https://www.temasdepsicoanalisis.org/2014/07/13/identidad-y-origenes-en-el-menor-adoptado/>>.
- TRISELIOTIS, J. (1994): *El trabajo en grupo en la adopción y el acogimiento familiar*, Madrid, Ministerio de Asuntos Sociales.
- VERHULST, F.C.; ALTHAUS, M. eta VERSLUIS-DEN BIEMAN, H.J.M. (1990): "Problem behavior in international adoptees: I. An epidemiological study", *Journal of the American Academy of Child and Adolescent Psychiatry*, 29. lib., 1. zk., 94.-103. or., <<https://doi.org/10.1097/00004583-199001000-00015>>.
- ZAMORA LÓPEZ, F. eta RODRÍGUEZ VEIGA, C. (2020): "Del hijo único al segundo hijo: políticas demográficas en China y sus consecuencias sobre la población", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 172. zk., 141.-160. or., <<https://doi.org/10.5477/cis/reis.172.141>>.

